

TOUR
de
franceTM

**GRAND DÉPART
PAYS BASQUE 2023**

**SEGURTASUN ETA
MUGIKORTASUN OPERATIBOA**

**OPERATIVO DE SEGURIDAD
Y MOVILIDAD**

2023



[@letour.euskadi](https://twitter.com/letour.euskadi)



AURKIBIDEA / ÍNDICE

- SEGURTASUN ETA MUGIKORTASUN DISPOSITIBOA EUSKO JAURLARITZA.....3
- DISPOSITIVO SEGURIDAD Y MOVILIDAD GOBIERNO VASCO.....10
- BILBOKO MUGIKORTASUNAREN AFEKZIOAK.....18
- AFECCIONES MOVILIDAD BILBAO.....21
- DONOSTIAKO MUGIKORTASUNAREN AFEKZIOAK.....24
- AFECCIONES MOVILIDAD, DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN.....27
- VITORIA - GASTEIZKO MUGIKORTASUNAREN AFEKZIOAK.....30
- AFECCIONES MOVILIDAD, VITORIA – GASTEIZ.....32
- AMOREBIETA-ETXANOKO MUGIKORTASUNAREN AFEKZIOAK.....34
- AFECCIONES MOVILIDAD, AMOREBIETA-ETXANO.....37
- 1. ETAPA.....40
- 1. ETAPA, IRTEERA-HELMUGA.....41
- 1. ETAPA, SALIDA-LLEGADA.....42
- 1. ETAPA, ERRUTOMETROA / RUTÓMETRO.....43
- 2. ETAPA.....45
- 2. ETAPA, IRTEERA – SALIDA.....46
- 2. ETAPA, HELMUGA – LLEGADA.....48
- 2. ETAPA, ERRUTOMETROA / RUTÓMETRO.....50
- 3. ETAPA.....52
- 3. ETAPA, IRTEERA.....53
- 3. ETAPA, SALIDA.....54
- 3. ETAPA, ERRUTOMETROA / RUTÓMETRO..... 55
- ERTZAINZAREN FITXA TEKNIKOAREN ADIBIDEAK – EJEMPLOS DE FICHA TÉCNICA DE LA ERTZAINZA.....57



Euskal erakundeek “Grand Départ Pays Basque 2023”rako Euskadin inoiz izan den segurtasun-operatibo handienetako bat aurkeztu dute

- Eusko Jaurlaritzak, hiru foru aldundiek eta lasterketak zeharkatzen dituen Euskadiko udalek beren mugikortasuna planifikatzeko eskatu diete herritarrei uztailaren 1ean, 2an eta 3an, hainbat orduz izango diren murrizketa handiegatik
- Bilboren kasuan, murrizketak 28an hasiko dira, egun horretan hasten baitira helmugako eremua muntatzeko lanak
- Mozketek eta aldaketek aireportuetarako sarbideei ere eragingo diete, bai eta garraio publikoaren ibilbide eta geralekuei ere; beraz, herritarrei behar besteko aurrerapenaz informatzeko eskatzen zaie
- Ibilbidetik eratorritako mugikortasun murrizpenei, Udako Irteera Operazioarekin eta Itsasarteko Pasabide Operazioarekin bat datozen datak gehitu behar zaizkie, Irungo mugari, AP-8ari, N-1ari eta AP-1ari bereziki eraginez
- Herritarrek Frantziako Tourraren errutometro ofizialak kontsulta ditzakete. Bertan Grand Départ Pays Basque 2023ko 3 etapek igaroko dituzten udalerrien zerrenda eta puntu kilometrikoak ikus daitezke. Informazio guzti hau Euskadiko irteera handiaren [webgune ofizialean](http://www.letour.euskadi.eus) egongo da ikusgai (www.letour.euskadi.eus).
- Gainera, informazio guztia [Waze aplikazioan](#) kargatuko da laster. Bertan, ibilbide alternatiboak eskainiko dira kontsultatzen duenarentzat

(Bilbao, 2023ko ekainaren 5a) **Josu Erkoreka** Lehen Lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak, **Amaia Arregi** eta **Martín Ibabe** Bilboko eta Donostiako Herritarren Segurtasuneko zinegotziek, hurrenez hurren, **Livia López** Vitoria-Gasteizko Kirol eta Osasun zinegotziak, **Andoni Agirrebeitia** Amorebieta-Etxanoko alkateak eta **Cristina Múgica** Bizkaiko Foru Aldundiko Lurralde Lehiakortasuneko eta Turismoko zuzendariak gaur goizean aurkeztu dute euskal erakundeek Euskadin uztailaren 1ean, 2an eta 3an egingo den *Grand Départ Pays Basque 2023a* dela-eta planifikatutako segurtasun-operatibo konplexua.

Euskadin aurrekaririk ez duen Segurtasuneko Plan integral bat da, Euskadiko segurtasun publikoan inplikaturik dauden euskal erakunde eta entitate guztien



artean koordinatua: Ertzaintza, Tourraren hiru etapak zeharkatzen dituzten udal guztietako udaltzaingoak, 112 SOS Deiak, hiru hiriburu eta hiru foru aldundietako larrialdietako eta suteak itzaltzeko zerbitzuak, Osakidetza, errepideak eta trafikoa kontrolatzeko talde instituzionalak, etab.

Operatibo orokorraz gain, gaur goizeko aurkezpenean 2023ko Frantziako Tourraren etapetako baten irteera edo helmuga diren 4 udalerriek diseinatutako plan espezifikoak zehaztu dira: Bilbo, Vitoria-Gasteiz, Amorebieta-Etxano eta Donostia.

Euskal erakundeek hilabeteak daramatzate segurtasun-plan horiek diseinatzen, 2023ko Frantziako Tourraren antolakuntzarekin, *Gendarmerie Nationale Française* Frantziako Polizia Nazionalarekin, eta *Garde Républicaine de France* motor-gidariekin koordinatuta. Agente horiek ere parte hartuko dute egun horietan, agintaritza gorenara Ertzaintzari dagokion segurtasun-planeari.

*Grand Départ Pays Basque 2023*ren gune nagusia eta logistikoa Barakaldoko BECen kokatuko da.

Mugikortasun-murrizketa handiak

Aurkezpenean, euskal erakunde guztiek azpimarratu dute Euskaditik igarotzen diren 2023ko Frantziako Tourraren hiru etapetan oinezkoen eta ibilgailuen mugikortasunean izango diren murrizketak handiak izango direla, eta herritarrei beren mugikortasuna denboraz planifikatzeko, behar besteko aurrerapenez informatzeko eta, batez ere, garraio publikoa erabiltzeko eskatu diete uztailaren 1ean, 2an eta 3an eragin handiak izango baitituzte.

Azaldu duten bezala, nazioarteko txirrindularitza-probaren ibilbideak berak eragindako mugikortasun-mugei lasterketak Udako Irteera Operazioarekin eta Itsasarteko Pasabidea Operazioarekin bat egiten dutela gehitu behar zaie, bereziki eraginez Irungo mugari, AP-8ari, N-1ari eta AP-1ari. Hori dela eta, agintariek baldintza hauek kontuan hartzea gomendatzen dute, udako egunak direla-eta aurreikusitako joan-etorriak aurreratzeko edo atzeratzeko.

Aurkezpenean, euskal erakundeek garrantzi berezia eman diote murrizketek aireportuetarako sarbideei ere eragingo diotenari, batez ere Loiukoari eta Hondarribikoari, eta garraio publiko guztiaren ibilbide eta geralekuei, batez ere errepidekoenei. Era berean, eragina izango dute lantokietako sarrerek eta



irteerek, osasun-hitzorduek, ospakizunek eta egun horietarako prestatutako gainerako aisialdiko-jarduerek.

Ildo honetan, herritarrek dageneko kontsulta ditzakete Grand Départ Pays Basque 2023ko 3 etapetarako Frantziako Tourreko errutometro ofizialak (atxikita). Dokumentu horietan publizitate karabana eta txirrindularitza lasterketa igarotzeko aurreikusitako orduak agertzen dira. Euskal agintariek behin eta berriz adierazi dutenez murrizketak *“oso garrantzitsuak izango dira eta guztioi eragingo digute, egun horietako uneren batean”*. Errutometroak Grand Départ Pays Basqueren webgune ofizialean kontsulta daitezke, baita herritarrei Euskadi osoko errepideetan gertatzen diren gorabeheren berri ematen duen **“011 Trafikoa”** zerbitzuko, telefono, webgune eta sare sozialetan.

Gainera, herritarrek kontsultak azkar eta modu eraginkorren egin ditzaten, mugikortasun-murrizketa guztiak **Waze aplikazioan** kargatuko dira laster. Aplikazio honek, zirkulazioaren mozketak eta aldaketak adierazteaz gain, ibilbide alternatiboak eskainiko ditu.

4 ordu baino gehiagoko mozketak guztira

Kalkuluen arabera, Ertzaintzak eta Euskadiko udaltzaingoek lasterketaren zirkuituko kaleak eta errepideak moztuko dituzte, gutxienez, ibilbidearen puntu bakoitzean proba egitea aurreikusita dagoen ordua baino 4 ordu lehenago. Izan ere, txirrindulariak irten baino 2 ordu lehenago, ibilbide beretik, animazioko karabana bat igaroko da. Karabana honek 30 minutuko iraupena izango du, eta, era berean, Ertzaintzak eta *Gendarmerie Nationale Française* Frantziako Polizia Nazionalak eskolatuko dute. Ordu guzti horietan errepidea erabat itxita egongo da ibilgailuentzat.

Gainera, etapa bakoitzetik irteerak eta helmugak izango diren 4 udalerrien kasuan, mozketek askoz iraupen luzeagoa izango dute, eta, beraz, Bilbo, Donostia, Vitoria-Gasteiz eta Amorebieta-Etxanon bizi edo bertara hurbiltzen direnek arreta berezia eskaini beharko diote garraio operadoreek emango duten zerbitzu publiko inguruko informazioari.

Garrantzitsua da azpimarratzea, halaber, Bilboren kasuan, murrizketak hilaren 29ra, ostegunera, aurreratuko direla; izan ere, Grand Départ Pays Basque 2023aren aurreko egunetan nazioarteko intereseko jarduera eta ekitaldi garrantzitsuak egingo baitira, hala nola, taldeen aurkezpena, fan zonearen irekiera, etab. Gainera, ekainaren 28tik aurrera Zumalakarregiko helmugako gunea muntatzeko ere errepide itxierak egongo dira.



Kontingentzia-plana

Lasterketaren zirkuitua moztuta egongo den orduetan larrialdiren bat gertatuz gero, Ertzaintzak 166 puntu ezarri ditu, eta talde profesionalak premiaz eta segurtasun-baldintzetan sartu ahal izango dira puntu horietatik. Beharrezkoa izanez gero, larrialdietako eta suteak itzaltzeko zerbitzuak sarbide-puntu horietako batetik sartu ahal izango dira zirkuitura, lasterketaren noranzkoan bakarrik eta Ertzaintzaren berariazko baimena jaso ondoren. Inork ezin izango du lasterketaren zirkuitura sartu larrialdietarako sarbide gisa diseinatuta ez dauden lekutik, ez kontrako noranzkoan, ezta Ertzaintzaren eskoltarik gabe ere, larrialdiaren arriskua eta maila ebaluatu ondoren.

Ertzaintzak prestatutako hiru etapetako ibilbiderako kontingentzia-plan horretaz gain, EAEko hiru hiriburuetako udaltzaingoez hiru plan propio eta espezifiko diseinatu dituzte, Bilboko, Vitoria-Gasteizko eta Donostiako ezaugarri zehatzekin.

2.190 mozketa-puntu

Probaren segurtasuna bermatzeko eta nazioarteko txirrindularitza probak zeharkatzen duen zirkuitu itxian oinezkorik, ibilgailurik, objekturik edo animaliarik sar ez dadin, Ertzaintzak 2.190 mozketa-puntu diseinatu ditu. Bidegurutzak, biribilguneak, sarbide-erreiak, zerbitzu-bideak, errepideetara ematen duten landa-bideak, industrialdeetarako sarbideak eta abar dira. Horietan, segurtasun-ekipoak egongo dira, eta lasterketarako sarrera debekatuak kontrolatzen.

Hainbat segurtasun-maila ezarri dira, kontrolatu beharreko puntuaren arriskuaren eta konplexutasunaren arabera. Ertzaintzak eta udaltzaingoez kontrolatuko dituzte, baina, horrez gain, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak prestakuntza-ekintza praktikoa antolatu du, Euskal Poliziaren azken promozioa 500 ikaslerekin, ikasle gisa behar bezala identifikatuta eta Ertzaintzako agenteekin batera. Azkenik, operatiboak 1.800 Tour Lagun ingururen laguntza izango du, batez ere herritarrei informazioa emateko.

Kokapen konplexuenak *Euskal Poliziako* agenteek bakarrik kontrolatuko dituzte. Izan ere, Ertzaintzak kritikotzat jo ditu poliziaren presentzia areagotuko duten beste 66 puntu, hainbat arrazoiengatik: zale ugari bilduko direlako, mendate gainak direlako, esprint bereziak, hornidura-guneak, etab. Puntu hauetan, kontrol zorrotza egingo da gaitutako eremuetatik kanpo aparkatu nahi duten ibilgailuen gainean, eta trafiko-mozketa zorrotzagoak egongo dira, baita 24 edo 48 ordukoak ere, hala nola Pikeko gaina, Oriokoa edo Jaizkibelgoa.



Mozketa-puntu hauetako bakoitza fitxa bati lotuta dago (adibidea atxikita). Fitxa horretan, kilometro-puntu zehatzaren xehetasun guztiak, argazkia, mozketa-ordutegia, argibideak, geolokalizazio zehatza duen QR kode bat eta abar jasotzen dira.

Zirkuituaren garbiketa

Lasterketaren aurreko egunetan, euskal erakundeek zirkuitua garbituko dute Ertzaintzak eta Euskadiko udaltzaingoen txirrindularien segurtasunerako arriskutzat jo dituzten objektu eta oztopo guztiak kenduz. Hau da, radarrak, seinaleak, zabor-edukiontzia, lorezainak, ibilgailuak eta abar. Hori dela eta, herritarrei aldez aurretik beren udaletxeetan informatzeko gomendatzen zaie, zirkuituan aparkatuta dauden ibilgailuak garabiek kendu ez ditzaten.

Hiri-altzariak erretiratu ezin badira, agenteek seinaleztatuko dituzte, tropelaren segurtasuna zaintzeko.

Datu bitxiak

- Gune nagusia eta logistikoa Barakaldoko BECen jarriko da.
- Egunero, Ertzaintzako 1.700 agentek hartuko dute parte:
 - 21 Ertzain-Etxeetako herritarren babeserako agenteak
 - Zaintza eta Erreskate Unitatea (uretako, mendiko, eskaladako eta aireko taldeak).
 - Lehergailuak indargabetzeko Unitatea.
 - Txakur Unitatea.
 - Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Trafiko Lurralde Unitateak, 60 motorista barne.
 - Inteligentzia Bulego Nagusia.
 - Esku-hartzerako Unitatea.
 - Ikerketako Unitate Nagusia.
 - Brigada mugikor Unitatea.
 - Miñoiak.
 - Hiru lurraldeetako 3 Aginte- eta Kontrol-zentroak (Ardatz).
 - Idazkaritza Nagusia etab.
- Ertzaintzako motoristak *Gendarmerie Nationale Française* Frantziako Polizia Nazionaleko motoristekin batera ibiliko dira, 1992ko Gipuzkoako argazkia errepikatuz (behean).



- *Euskal Poliziaren* azken promozioiko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako 500 ikasle.
- 1800 Tour Lagun baino gehiago informazio- eta laguntza-lanetan.
- Tailer mugikor bat 2 mekanikarekin, etapetan polizia-ibilgailu guztiei euskarria emateko.
- Segurtasun orokorra koordinatzeko 2 mahai: poliziarena bat, Ertzaintzaren Erandioko egoitza nagusian, eta larrialdietako bat, Trafikoa Kudeatzeko eta Larrialdiak Koordinatzeko Txurdinagako Zentroan, Bilbon.
- 26 suhiltzaile-parke guardian (10 Bizkaian, 9 Gipuzkoan eta 7 Araban), 120 pertsona etapa bakoitzeko:
 - Lehenengo etapa: Bizkaiko Foru Aldundiko 70 kide eta Bilboko 54.
 - Bigarren etapa: Arabako Foru Aldundiko 35 kide, Gipuzkoako Foru Aldundiko 40, Donostiako 15 eta Vitoria-Gasteizko 18.
 - Hirugarren etapa: Bizkaiko Foru Aldundiko 70 kide, Gipuzkoako 40 eta Donostiako 15.
- Osakidetzako mediku bat lasterketan, Tourreko osasun-zerbitzuko arduradunarekin batera.
 - Osakidetzako osasun-postu aurreratu bat, osasun-larrialdietako teknikari 1, 2 erizain, oinarrizko bizi-euskarria duen anbulantzia 1 eta zenbait kasuetan, bizi-euskarri aurreratua duen anbulantzia 1 erizainarekin.
 - Oinarrizko bizi-euskarria duten 7 anbulantzia.
 - Bizi-euskarri aurreratuko 2 anbulantzia erizainarekin
 - Bizi-euskarri aurreratu medikalizatua duen anbulantzia 1.
 - Txurdinagako zentro koordinatzailean, krisi-mahai bat. Bertan, Osakidetzako erizain batek eta kudeaketa-taldeko arduradun batek parte hartuko dute (LGSSen eta dispositiboan arduraduna).
- 120 banderatzorri gorri, berde eta hori trafikoko agenteentzat.
- Ekipoek eta antolaketak Euskadiko 27 hoteletan hartuko dute ostatu, horietako 11 Bilbon.
- 5 udalerritatik 2023ko Tourra 2 egun/etapa desberdinetan igarotzen da: Errenteria, Hondarribia, Irun, Pasaia eta Oiartzun.
- Tourra Euskadiko 108 udalerritatik igarotzen da:
 - ✓ Lehenengo etapa, 38 udalerririk: Arratzu, Asua, Bakio, Barrika, Berango, Bermeo, Bilbao, Busturia, Derio, Erandio, Ereño, Forua, Galdakao, Gatika, Gauegiz-Arteaga, Gernika-Lumo, Getxo, Gorkiz, Ibarangelu, Kortezubi, Larrabetzu, Laukiz, Leioa, Lemoiz, Lezama, Loiu, Morga,



Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz, Plentzia, Sondika, Sopela, Sukarrieta, Urduliz eta Zamudio.

- ✓ Bigarren etapa, 47 udalerrri: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alegría-Dulantzi, Alkiza, Altzo, Amezketza, Andoain, Anoeta, Aramaio, Arkaute (Vitoria-Gasteizko kontzejua), Arrasate, Arratzua-Ubarrundia, Asteasu, Astigarraga, Beasain, Bergara, Billabona, Dallo (Barrundiako kontzejua), Donostia, Elburgo, Errenteria, Gabiria, Hernani, Hondarribia, Idiazabal, Ilarratza (Vitoria-Gasteizko kontzejua), Irun, Iruraiz-Gauna, Leaburu-Txarama, Legazpi, Legutio, Lezo, Marieta (Barrundiako kontzejua), Maturana (Barrundiako kontzejua), Mutiloa, Oiartzun, Olaberria, Oñati, Ordizia, Ozaeta, Pasaia, Segura, Tolosa, Urnieta, Zaldibia, Zerain eta Zizurkil.
- ✓ Hirugarren etapa, 28 udalerrri: Abadiño, Aia, Amorebieta-Etxano, Amoroto, Berriatua, Berriz, Deba, Durango, Errenteria, Getaria, Hondarribia, Irun, Isparter, Iurreta, Lekeitio, Mallabia, Markina-Xemein, Mendexa, Mutriku, Oiartzun, Ondarroa, Orio, Pasaia, Zarautz, Zestoa, Ziortza-Bolibar eta Zumaia.





Las instituciones vascas presentan un operativo de seguridad sin precedentes en Euskadi para el Grand Départ Pays Basque 2023

- El Gobierno Vasco, las tres diputaciones forales y los ayuntamientos de Euskadi por los que discurre la carrera piden a la ciudadanía planificación de su movilidad durante los días 1, 2 y 3 de julio por las importantes restricciones que se van a dar durante varias horas
- En el caso de Bilbao, las restricciones se adelantarán desde el día 28, fecha en la que se inician los trabajos de montaje de zona de meta.
- Los cortes y cambios afectarán, también, al acceso a los aeropuertos, así como al recorrido y paradas del transporte público, por lo que se solicita a la ciudadanía que se informe con antelación suficiente
- A las limitaciones de movilidad derivadas del recorrido, se suma la coincidencia de fechas con la Operación Salida de Verano y la Operación Paso del Estrecho, con especial afección a la frontera de Irun, AP-8, N-1 y AP-1
- La ciudadanía puede consultar los rutómetros oficiales del Tour de Francia con cada uno de los puntos kilométricos y el paso por cada municipio durante las 3 etapas del Grand Départ Pays Basque 2023 en la [web oficial](http://www.letour.euskadi.eus) de la gran salida del Tour en Euskadi. (www.letour.euskadi.eus)
- Todos los cortes de tráfico serán cargados próximamente en la aplicación [App Waze](#) , que ofrecerá rutas alternativas para quien lo consulte

(Bilbao, 5 de junio de 2023) El Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad, **Josu Erkoreka**, las y los concejales de Seguridad Ciudadana de Bilbao, **Amaia Arregi**, y de Donostia / San Sebastián, **Martín Ibabe**, así como de Deporte y Salud de Vitoria-Gasteiz, **Livia López**, el alcalde Amorebienta-Etxano, **Andoni Agirrebeitia**, y la Directora General de Competitividad Territorial y Turismo de la Diputación Foral de Bizkaia, **Cristina Múgica**, han presentado, esta mañana, el complejo operativo de seguridad planificado por el conjunto de instituciones vascas con motivo del Grand Départ Pays Basque 2023 que se desarrollará en Euskadi los días 1, 2 y 3 de julio.



Se trata de un Plan Director de Seguridad integral y sin precedentes en Euskadi, coordinado entre todas las instituciones y entidades vascas involucradas en la seguridad pública del país: Ertzaintza, policías locales de todos los ayuntamientos por los que discurre las tres etapas del Tour, 112 SOS Deiak, servicios de emergencias y extinción de incendios de las tres capitales y las tres diputaciones forales, Osakidetza, equipos de control de carreteras y tráfico de todos los niveles institucionales, etc.

Además del operativo general, en la presentación de esta mañana se han detallado los planes específicos diseñados por las 4 localidades que son salida o llegada de alguna de las etapas del Tour de Francia 2023: Bilbao, Vitoria-Gasteiz, Amorebieta y Donostia / San Sebastián.

Las instituciones vascas llevan meses trabajando en el diseño de estos planes de seguridad en coordinación con la organización del Tour de Francia 2023, la Policía Nacional Francesa, la *Gendarmerie Nationale Française* y sus motoristas de la *Garde Républicaine de France*, agentes que durante esos días participarán, igualmente, en el plan de seguridad cuyo máximo mando corresponde a la Ertzaintza.

El centro neurálgico y logístico del Grand Départ Pays Basque 2023 se ubicará en el BEC de Barakaldo.

Importantes restricciones de movilidad

Durante la presentación, todas las instituciones vascas han puesto el acento en las importantes restricciones que se van a producir en la movilidad de peatones y vehículos durante las tres etapas del Tour de Francia 2023 que discurren por Euskadi y han insistido en pedir a la ciudadanía que planifique con tiempo su movilidad, se informe con antelación suficiente y, sobre todo, que use el transporte público, durante los próximos 1,2 y 3 de julio ya que las afecciones van a ser muy importantes.

Tal y como han explicado, a las limitaciones de movilidad derivadas del propio recorrido de la prueba ciclista internacional, hay que sumar que se da una coincidencia de fechas con la Operación Salida de Verano y la Operación Paso del Estrecho, con especial afección a la frontera de Irun, la AP-8, la N-1 y la AP-1. Por ello, las autoridades recomiendan tener en cuenta estos condicionantes para, incluso, si fuera preciso, adelantar o retrasar los desplazamientos previstos con motivo de las fechas estivales.



Durante la presentación, las instituciones vascas han dado especial importancia al hecho de que las restricciones también afectarán al acceso a los aeropuertos, sobre todo el de Loiu y Hondarribia, y al recorrido y paradas de todo el transporte público, sobre todo por carretera. Igualmente, habrá afección a los accesos y salidas de los centros de trabajo, citas sanitarias, celebraciones y demás actividades lúdicas preparadas para esos días.

En este sentido, la ciudadanía puede consultar desde ya los rutómetros oficiales (adjuntos) del Tour de Francia para las 3 etapas del *Grand Départ Pays Basque 2023*. En estos documentos aparecen tanto las horas estimadas de paso de la caravana publicitaria, así como de la carrera ciclista. Las autoridades vascas insisten en que las restricciones que se van a producir *“van a ser muy importantes y nos van a afectar, en algún momento de esos días, a todos y todas”*. Los rutómetros se pueden consultar en la página oficial del *Grand Départ Pays Basque* así como en el “011 Trafikoa”, teléfono, web y redes sociales de atención a las incidencias de tráfico de todo Euskadi.

Además, con el objetivo de facilitar la consulta rápida y efectiva por parte de la ciudadanía, próximamente se cargarán todas las restricciones de movilidad en la [App Waze](#). Esta aplicación, además de señalar los cortes y cambios de circulación, ofrecerá rutas alternativas.

Más de 4 horas de cortes totales

Según las estimaciones, la Ertzaintza y las policías locales de Euskadi cortarán las calles y carreteras del circuito de la carrera, como mínimo, 4 horas antes de la hora a la que esté previsto que discurra la prueba en cada punto del recorrido. Esto es así porque 2 horas antes de la salida de los corredores, por el mismo recorrido, discurrirá una caravana festiva y de animación, cuya duración es de 30 minutos y que, igualmente, será escoltada por la Ertzaintza y la *Gendarmerie Nationale Française*. Durante todas esas horas la carretera estará totalmente cerrada a vehículos.

Además, en el caso específico de las 4 localidades en las que se celebran salidas y llegadas de cada etapa los cortes van a tener una duración muy superior por lo que quienes vivan o se acerquen a Bilbao, Donostia / San Sebastián, Vitoria-Gasteiz y Amorebieta-Etxano, deberán prestar atención especial a la información de servicio público facilitada por los diferentes operadores de transporte.



También es importante destacar que, en el caso concreto de Bilbao, las restricciones se adelantarán al jueves 29 ya que los días previos al Grand Départ Pays Basque 2023 se celebrarán actividades y eventos importantes de interés internacional como, por ejemplo, la presentación de equipos, la apertura de la fan zone, etc. Además desde el 28 de junio habrá cierres para la zona de montaje de meta en Zumalacárregui.

Plan de contingencia

En caso de ocurrir una emergencia durante las horas que permanecerá cortado el circuito de la carrera, la Ertzaintza ha establecido 166 puntos por los que los equipos profesionales podrán acceder de manera urgente y en condiciones de seguridad. Si fuera necesario, los servicios de emergencias y de extinción de incendios podrán acceder al circuito por uno de esos puntos de acceso, solo en sentido de la carrera y previa autorización expresa de la Ertzaintza. Nadie podrá acceder al circuito de la carrera por ningún lugar que no esté diseñado como punto de acceso de emergencias, ni en sentido contrario, ni sin escolta de la Ertzaintza una vez evaluado el riesgo y el nivel de la emergencia.

Además de este plan de contingencia para el recorrido de las tres etapas, preparado por la Ertzaintza, las policías locales de las tres capitales vascas han diseñado tres planes propios y específicos con las características concretas de Bilbao, Vitoria-Gasteiz y Donostia / San Sebastián.

2.190 puntos de corte

Para garantizar la seguridad de la prueba y evitar que ningún peatón, vehículo, objeto o animal entre en el circuito cerrado por el que discurre la prueba ciclista internacional, la Ertzaintza ha diseñado 2.190 puntos de corte. Son cruces, rotondas, carriles de incorporación, vías de servicio, caminos rurales que da a carreteras, accesos a polígonos industriales, etc. en las que habrá equipos de seguridad controlando potenciales accesos prohibidos a la carrera.

Se han establecido varios niveles de seguridad según el riesgo y complejidad del punto a controlar. Estarán controlados por la Ertzaintza y las policías locales, pero, además, la Academia Vasca de Policía y Emergencias ha organizado una acción formativa práctica, con 500 estudiantes de la última promoción de la *Euskal Polizia*, que irán debidamente identificados como alumnado y acompañados por agentes de la Ertzaintza. Finalmente, el operativo contará con el apoyo 1.800 *Tour Lagunak* ocupándose, sobre todo, de la información a la ciudadanía.



Las ubicaciones más complejas, serán controladas única y exclusivamente por agentes de la *Euskal Polizia*. De hecho, la Ertzaintza ha catalogado como críticos otros 66 puntos en los que se redoblará la presencia policial por diferentes motivos: porque congregarán a multitud de personas aficionadas, porque son altos de montaña, esprints especiales, zonas de avituallamiento, etc. En estos puntos, se realizará un control exhaustivo de los vehículos que pretendan estacionar fuera de las zonas habilitadas y habrá cortes de tráfico más rigurosos, incluso 24 o 48 horas, como, por ejemplo, el alto de Pike, el de Orio o Jaizkibel.

Cada uno de estos puntos de corte va unido a una ficha (ejemplo adjunto) en la que constan todos los detalles del punto kilométrico exacto, fotografía, horario de corte, indicaciones, un código QR con la geolocalización exacta, etc.

Limpieza del circuito

Durante los días previos a la carrera, las instituciones vascas limpiarán el circuito de todos los objetos y obstáculos que la Ertzaintza y las policías locales de Euskadi han señalado como un peligro para la seguridad de los corredores. Esto es, radares, señalética, contenedores de basura, jardineras, vehículos, etc. por este motivo, se recomienda a la ciudadanía informarse previamente en sus respectivos ayuntamientos para evitar que los vehículos estacionados en el circuito sean retirados por las grúas.

En el caso de que el mobiliario urbano no pueda retirarse, habrá agentes señalizándolos para velar por la seguridad del pelotón.



Datos curiosos

- El centro neurálgico y logístico se instalará en el BEC de Barakaldo.
- Cada día, participarán 1.700 agentes de la Ertzaintza:
 - Agentes de protección ciudadana adscritos a las 21 Ertzain-Etxeak
 - Unidad de Vigilancia y Rescate en configuración acuática, montaña/escalada, y aérea.
 - Unidad de Explosivos.
 - Unidad Canina.
 - Unidades Territoriales de Tráfico de Bizkaia, Gipuzkoa y Araba, incluyendo 60 motoristas.
 - Oficina Central de Inteligencia.
 - Unidad de Intervención.
 - Unidad Central de Investigación.
 - Unidad de Brigada Móvil.
 - Miñones.
 - Los 3 Centros de Mando y Control de los 3 territorios (Ardatz).
 - Secretaría General etc.
- Las y los motoristas de la Ertzaintza circularán junto con las y los motoristas de la *Gendarmerie Nationale Française* repitiéndose así, la foto de 1992 en Gipuzkoa (abajo).
- 500 estudiantes de la Academia Vasca de Policía y Emergencias de la última promoción de la *Euskal Polizia*.
- Más de 1800 Tour Lagunak en tareas de información y apoyo.
- 1 taller móvil con 2 mecánicos para dar soporte a todos los vehículos policiales durante las etapas.
- 2 mesas de coordinación de la seguridad general: 1 policial, en la sede central de la Ertzaintza en Erandio, y 1 de emergencias, en el Centro de Gestión del Tráfico y Coordinación de Emergencias de Txurdinaga (Bilbao).
- 26 parques de bomberos en guardia (10 en Bizkaia, 9 en Gipuzkoa y 7 en Araba) con 120 efectivos por etapa:
 - Primera etapa: 70 efectivos de la Diputación Foral de Bizkaia y 54 de Bilbao.
 - Segunda etapa: 35 efectivos de la Diputación Foral de Araba, 40 de la de Gipuzkoa, 15 de Donostia / San Sebastián y 18 de Vitoria-Gasteiz.
 - Tercera etapa: 70 efectivos de la Diputación Foral de Bizkaia, 40 de Gipuzkoa y 15 de Donostia / San Sebastián.
- 1 médica Osakidetza en carrera junto con responsable del servicio sanitario del Tour.



- Puesto sanitario avanzado compuesto por 1 técnico de emergencias sanitarias y enfermería (2 máximo) y 1 ambulancia con soporte vital básico y en algunos casos, 1 ambulancia con soporte vital avanzado enfermerizada.
- 7 ambulancias con soporte vital básico.
- 2 ambulancias con soporte vital avanzado enfermerizada.
- 1 ambulancia con soporte vital avanzado medicalizada.
- En el centro coordinador de Txurdinaga, una mesa de crisis en la que participarán 1 enfermero/enfermera de Osakidetza y 1 responsable del grupo de gestión (responsable de RTSU y dispositivos).

- 120 banderines rojos, verdes y amarillos para las y los agentes de tráfico.
- Los equipos y organización se alojan en 27 hoteles de Euskadi, 11 de ellos en Bilbao.
- Hay 5 localidades vascas por las que el Tour 2023 pasa 2 días/etapas diferentes: Errenteria, Hondarribia, Irun, Pasaia y Oiartzun.
- El Tour discurre por 108 localidades vascas:
 - ✓ Primera etapa, 38 localidades: Arratzu, Asua, Bakio, Barrika, Berango, Bermeo, Bilbao, Busturia, Derio, Erandio, Ereño, Forua, Galdakao, Gatika, Gautegiz-Arteaga, Gernika-Lumo, Getxo, Gorliz, Ibarangelu, Kortezubi, Larrabetzu, Laukiz, Leioa, Lemoiz, Lezama, Loiu, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz, Plentzia, Sondika, Sopela, Sukarrieta, Urduliz y Zamudio.
 - ✓ Segunda etapa, 47 localidades: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alegría-Dulantzi, Alkiza, Altzo, Amezketa, Andoain, Anoeta, Aramaio, Arkaute (Concejo de Gasteiz), Arrasate, Arratzua-Ubarrundia, Asteasu, Astigarraga, Beasain, Bergara, Billabona, Dallo (Concejo de Barrundia), Donostia/San Sebastian, Elburgo, Errenteria, Gabiria, Hernani, Hondarribia, Idiazabal, Ilarratza (Concejo de Gasteiz), Irun, Iruraiz-Gauna, Leaburu-Txarama, Legazpi, Legutio, Lezo, Marieta (Concejo de Barrundia), Maturana (Concejo de Barrundia), Mutiloa, Oiartzun, Olaberria, Oñati, Ordizia, Ozaeta, Pasaia, Segura, Tolosa, Urnieta, Zaldibia, Zerain y Zizurkil.
 - ✓ Tercera etapa, 28 localidades: Abadiño, Aia, Amorebieta-Etxano, Amoroto, Berriatua, Berriz, Deba, Durango, Errenteria, Getaria, Hondarribia, Irun, Isparter, Iurreta, Lekeitio, Mallabia, Markina-Xemein, Mendexa, Mutriku, Oiartzun, Ondarroa, Orio, Pasaia, Zarautz, Zestoa, Ziortza-Bolibar y Zumaia.



Donostia, 1992



PRENTSA OHARRA

GRAND DÉPART PAYS BASQUE-K BILBON ERAGINGO DITUEN ALDAKETAK

Frantziako Tourraren 110. edizioko lehen pedalkadek Bilbo dute irteera eta helmuga. Txirrindulariak iritsi aurretik, Bilbo Tourra bere kaleetan sentitzen hasiko da.

Ekainak 28, asteazkena

Bilbon, ekainaren 28ko (asteazkena) arratsalde gauean hasiko dira trafiko eraginak, kamioiak Etxebarria parkera iristearekin batera. Bertan, eremu teknikoa eta uztailaren 1eko (larunbata) 2023ko Frantziako Tourraren lehen etaparekin lotutako elementuak muntatuko dira. Hori dela eta, Zumalakarregi Etorbideko sarbidea itxiko da 20:00etatik 4:00etara (Guridi Musikaria eta Zabalbide artean).

Ekainak 29, osteguna

Ostegunean, hilak 29, Taldeen Aurkezpen Ofiziala egingo da Guggenheim Bilbao Museoaren Zabalgunean, desfilea Euskalduna Jauregiaren ingurutik abiatuko delarik. Abandoibarra Etorbidean (Jesusen Bihotzetik Uribitarteko biribilguneraino) trafiko-mozketak 9:00etatik 23:00etara egingo dira. Aurreko egunean, ekainaren 28an, murrizketak egongo dira Abandoibarra etorbideko erreietako batean, 18:00etatik 20:30era, gutxi gorabehera.

Egun berean, ekainaren 29an, "Fan Park" Frantziako Tourraren Fan Zone-a irekiko da Bilboko Areatzan, eta larunbatera arte egongo da zabalik. Eremu honetan ez da aurreikusten trafiko-eraginik.

Bestalde, San Mames zabalgunearen perimetroan eraginak izango dira ostegunean, hilak 29, arratsalde-gauez, logistika-kamioien eta irteeraren ardura duten muntaketa-ekipoen etorreragatik. Zirkulazioa etetea beharrezkoa izango da kamioiak perimetro horretan aparkatzea errazteko, eta itxita egongo da larunbateko 17:30ak arte. Ordu horretan aurreikusten baita kamioiak Gasteizera irtetea, bigarren etapako irteerara.



Ekainak 30, ostirala

Irteera neutralizaturako eta helmugarako hesia ostiraletik larunbaterako gauean jarriko da, 0:00etatik 06:00etara gutxi gorabehera, eta, beraz, bi ibilbideetako kaleek zirkulazio-murrizketak izango dituzte denbora horretan.

Uztailak 1, larunbata

Trafikoaren gaineko afekzio handienak larunbatean, uztailak 1, izango dira, Grand Départ Pays Basque – Frantziako Toureko lehen etapa, Bilbon hasi eta amaituko dena. Errepide nagusiak ibilgailuentzat itxita egongo dira, larrialdietako zerbitzuak izan ezik.

Trafiko-mozketak ordu tarteka ezarri eta antolatuko dira. Horrela:


- Bilborako **San Mameseko sarbidea** itxita egongo da 6:30etatik 14:00etara.
- **Artxandako tunelak**, Txorierritik hasita, itxita egongo dira goizeko 6:30etatik 18:30era Ugaskorako bidean (Deusturako noranzkoa); Begoñatik, berriz, 24 ordu iraungo du mozketak (ekainaren 30eko 22:00etatik hilaren 1eko 22:00etara). Eta tuneletatik Salberaino (Rekalde Zumarkalerako noranzkoa), mozketa 8:30etatik 14:00etara egingo da.
- **Enekuritik** sarbideak arian-arian itxiko dira 8:00etatik aurrera, eta 18:15ak aldera normaltasuna berreskuratuko da.
- Bilborako **N-634 errepideko sarbidea** Ibarsusi parean itxita egongo da 8:00etatik 22:00etara.
- **Zumalakarregi Etorbidean** zirkulazio-murrizketak egongo dira ostiraletik, 22:00etatik, eta helmugaren azken ibilbidea erabat itxita egongo da larunbateko 12:30etik uztailak 2ko (igandea) 18:00etara.

Udaltzaingoaren plantilla gehiena prest egongo da Ertzaintzarekin batera ezartzen diren dispositiboetan koordinatuta lan egiteko.



Halaber, **mozketek eta itxierek eragindako eremuetako bizilagunek unean uneko abisu eguneratuak jasoko dituzte Udalaren aldetik**, lasterketak Bilbotik igarotzean eragiten dituen kalte guztien berri emateko.

IRTEERA ETA HELMUGAKO MAPA





NOTA DE PRENSA

AFECCIONES DE MOVILIDAD GENERADAS POR EL GRAND DÉPART PAYS BASQUE EN BILBAO

Las primeras pedaladas de la 110ª edición del Tour de Francia tienen Bilbao como salida y llegada. Antes de la llegada de los ciclistas, Bilbao empezará a sentir el Tour en sus calles.

Miércoles 28 de junio

En Bilbao, las primeras afecciones al tráfico comenzarán en la tarde noche del 28 de junio, miércoles, coincidiendo con la llegada de los camiones al Parque Etxebarria, donde se montará la zona técnica y los elementos relacionados con la llegada de la primera etapa del Tour de Francia 2023, el sábado 1 de julio. Por ese motivo, se cortará el acceso por Avenida Zumalacárregui de 20:00 a 4:00 horas (entre Músico Guridi y Zabalbide).

Jueves 29 de junio

El jueves, 29 tendrá lugar la Presentación Oficial de los Equipos en la Explanada del Museo Guggenheim Bilbao, cuyo desfile arrancará desde el entorno del Palacio Euskalduna. Los cortes al tráfico en la Avenida Abandoibarra (desde el Sagrado Corazón a la rotonda de Uribitarte) se realizarán de 9:00 a 23:00 horas. El día anterior, 28 de junio, habrá restricciones en uno de los carriles de la Avenida Abandoibarra entre las 18:00 y las 20:30 aproximadamente.

El mismo día, 29 de junio, se abrirá la Fan Zone del Tour de Francia, “Fan Park”, en el Arenal bilbaíno, que se mantendrá abierto hasta el sábado. En esta zona no están previstas afecciones al tráfico.

El perímetro de la explanada de San Mamés, por el contrario, se verá afectado el jueves 29 a la tarde noche por la llegada de los camiones de logística y los equipos de montaje responsables de la salida. El corte de tráfico será necesario para facilitar el estacionamiento de los camiones en este perímetro, que permanecerá cerrado hasta el sábado a las 17:30, hora prevista para la



salida de los camiones hacia Vitoria-Gasteiz, donde tendrá lugar la salida de la segunda etapa.

Viernes 30 de junio

La colocación del vallado para la salida neutralizada y la llegada se llevará a cabo durante la noche del viernes al sábado, desde las 0:00 hasta las 06:00 aproximadamente, por lo que las calles de ambos recorridos sufrirán restricciones al tráfico durante este tiempo.

Sábado 1 de julio

Las mayores afecciones tendrán lugar el sábado, 1 de julio, primera etapa del Grand Départ Pays Basque – Tour de Francia, con salida y llegada en Bilbao, cuyas vías principales estarán cerradas al tráfico rodado, a excepción de los servicios de emergencias.

Los cortes al tráfico se sucederán establecidos y organizados por bloques horarios. Así:

- El **acceso a Bilbao por San Mamés** permanecerá cerrado de 6:30 hasta las 14:00 horas.
- Los **túneles de Artxanda** desde el Txorierrri permanecerán cortados desde las 6:30 de la mañana hasta las 18:30 en la vía hacia Ugasko (sentido Deusto); mientras que por Begoña el corte durará 24 horas (de las 22:00 horas del día 30 de junio a las 22:00 horas del día 1). Y desde los túneles hasta La Salve (sentido Alameda Rekalde), el corte se hará de 8:30 a 14:00 horas.
- **Por Enekuri** los accesos se irán cerrando progresivamente a partir de las 8:00 para ir recuperando la normalidad total hacia las 18:15 horas.
- El **acceso a Bilbao por la N-634** a la altura de Ibarsusi permanecerá cerrado de 8:00 a 22:00 horas.
- La **Avenida Zumalacárregui** sufrirá restricciones al tráfico desde el viernes a las 22:00 y el recorrido final de la llegada estará completamente cerrado al tráfico desde las 12:30 del sábado hasta las 18:00 del domingo 2 de julio.

La Policía Municipal contará con el grueso de su plantilla disponible para trabajar de forma coordinada en los dispositivos conjuntos que se establezcan con Ertzaintza.



Asimismo, las y los vecinos de las distintas zonas afectadas por los cortes y los cierres, recibirán por parte del Ayuntamiento avisos puntuales y actualizados de todas las afecciones que la carrera origine a su paso por Bilbao.

MAPA DE SALIDA Y LLEGADA





PRENTSA OHARRA

GRAND DÉPART PAYS BASQUE-K DONOSTIAN ERAGINGO DITUEN ALDAKETAK

Uztailaren 2an, igandea, Frantziako Tourraren bigarren etapa Donostian amaituko da, eta astelehenean, uztailaren 3an, Iparralderantz aterako da. Hori dela eta, aldaketa garrantzitsuak izango dira hirian. Hala, bigarren etapako helmugako eremuak, Tourreko karabana ezartzeko beharrezkoak diren ondoko eremuak, eta hirugarren etaparen igarotze-ibilbidea kontuan hartuta, egun bakoitzean gutxi gorabehera 6 ordu eta erdiz itxi beharko dira hiriko gune batzuk. Aurreikusitako ibilbideetan eta haien inguruko eremuetan izango dira eragin horiek eta aldaketa garrantzitsuak ekarriko dituzte hiriaren ohiko funtzionamenduan. Udaltzainek, mugikortasun agenteek eta Frantziako Tourreko antolakuntzako pertsonak egingo dituzte bide eta gune horiek guztiak ixteko lanak.

Sagues eta Pasealeku Berria izango dira Tourreko karabanaren epizentroetako bat etaitxita egongo dira larunbatetik, uztailaren 1etik aurrera. Saguesen gune teknikoa kokatuko da, 80 kamioi baino gehiagorekin, eta bertatik lasterketaren segurtasuna, jarraipena eta funtzionamendua bermatuko dira. Horrekin batera, Zurriola hiribidea izango da beste puntu beroetako bat, helmuga Kursaal ondoan baitago.

Bestalde, Pasealeku Berriak hartuko du Tourreko teknikariak atsedena hartzeko eta biziberritzeko gunea eta, besteak beste, horiek arduratuko dira helmuga instalatzeaz eta desmuntatzeaz.

Udalak gomendatzen du herritarrek auto pribatua ez erabiltzea eta garraio publikoan mugitzea, nahiz eta, hauetan ere ibilbide eta ordutegi batzuk aldatu beharko diren.

Uztailaren 1a, larunbata

Uztailaren 1ean hasiko dira toki batzuk ixten; zehazki, Zurriola hiribidea 20:00etatik aurrera izango da itxita egun horretan, helmugako arkua eta podiuma muntatzeko.

Sagues eta Pasealeku Berria uztailaren 1eko 18:00etatik aurrera izango da itxita, eta uztailaren 2ko 23:00etan irekiko dira berriz.



Uztailaren 2a, igandea: 2. etaparen helmuga Zurriolan

Uztailaren 2ko etapa Donostian bukatuko da. Hiriko kale batzuetatik pasa eta, 4,8 km-ko ibilbidea egin ondoren, Zurriola hiribidean izango du helmuga. 16:57h inguruan sartuko da lasterketa hirian, Pasaia aldetik.

Ibilbide hau egingo du: Buenavista etorbidea - Pasaia portuko zeharbidea - Jose Elozegi alkatearen etorbidea - Ategorrieta - Nafarroa hiribidea - Zurriola hiribidea.

Ibilbide hori 12:00etatik 18:30era izango da itxita, gutxi gorabehera.

Bide horiez gain, Tourraren beharrak direla eta, Argentinako Errepublika, Boulevard, Miramar eta Askatasunaren hiribidea ere trafikorik gabe geratuko dira.

Uztailaren 3a, astelehena: 3. etapa hiritik igaroko da

Uztailaren 3ko (astelehena) etapak mendebaldetik ekialdera zeharkatuko du hiria, eta 19,3 km-ko ibilbidea egingo du udalerrian. Oriotik Igeldora sartuko da, eta Antiguatik, Erdialdetik eta Grosetik igaro ondoren, Pasaiatik irtengo da.

Ibilbide hau egingo du: Aita Orkolaga - Cristobal Balenziaga - Igeldo pasealekua - Iruña - Zumalakarregi - Satrustegi - Kontxa - Zubieta - Easo - Askatasunaren hiribidea - Hernani - Bulebarra - Erregina Erregeordea - Zurriola hiribidea - Nafarroa hiribidea - Ategorrieta - Jose Elozegi alkatearen hiribidea - Pasaia portuko zeharbidea - Buenavista etorbidea.

Gutxi gorabehera, 10:30etik 17:00ak arte izango dira bide horiek itxita, Igeldon izan ezik.

Bide horiez gainera, ondoko beste batzuk ere itxiko dira:

- Altza - Herrera: Altza pasealekuko biribilgunea - Herrera pasealekua - Peruenekalea.
- Bidebieta: Nornahi plazako biribilgunea




- Intxaurre: Zubiaurre biribilgunea - Txaparrene eta Mons pasealekua (Zubiaurre alderako desbideraketa)
- Gros: Euskadi plaza eta Jaialai - Ategorrieta
- Erdialdea: Foru pasealekua - San Martin
- Antigua: Europa plazako eta Pio Barojako biribilguneak - Mikelete pasealekua.

Igeldo

